



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSA-OHARRA

Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Batzarra

Batzar Nagusiek izendatu egin ditue BBK-ren Batzar Orokorrean Bizkaiak izango dituan 5 ordezkariak

Gernikan, 2012ko urriaren 31n

2012ko zortzigarren Osokoaren lehen aztergaia izan da BBK-ren Batzar Orokorrean Bizkaiak izango dituan 5 ordezkariak izendatzea. Bozketea Osokoaren hasieran egin da eta horren emaitza izan da, azken Foru Hauteskundeetan alderdiek ataratako batzarkide kopuruaren arabera, hurrengoak izatea ordezkariok: Luis M^a Arteatx eta Naiara Zamalloa (Euzko Abertzaleak Taldeak proposatutakoak), Antón Borja (Bildu), Luis Lupiañez (Socialistas Vascos-SV) eta Jesús Sanz (BTP). Horreen ordezkioak hurrengook izango dira: Itxaso Atutxa eta Rosa M^a Legarreta-Etxebarria (EAb), M^a Soledad Martínez de Murgia (Bildu), Laura Trevilla (SV) eta Mikel López (BTP).

Gai-zerrendako hurrengo aztergaia izan da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortzeko Foru Araugaiari jagokon legebatar bideraketearen azken pausoa emotea. Kontseilu hori Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren ordezkio izateko sortu da. Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru Diputatuak esan dauenaren arabera, organo hori sortu da “Bizkaiko Lurralde Historikoan iraunkortasunerako politikak sustatu eta kontrolatzeko”. Aldaketa horregaz, bada, Aldundiak helburu bi ditu; batetik, gastua arrazionaltasunez egitea eta, bestetik, Bizkaiko Batzar Nagusietako Talde guztiek parte hartzea; hain zuzen be, izango dituan 12 kideetatik 6 Batzar Nagusioak dira eta beste 6 Aldundiarenak.

Araugai horrek Bizkaiko legebatarreko Talderik gehienek aldeko botoa izan dau; izan be Euzko Abertzaleak Taldeak, Socialistas Vascos Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak baietz bozkatu dabe, eta Bildu Taldearen abstentzinoa baino ez dau izan, Bilduren aburuz, Kontseilu horrek parte hartzeko dauen erea ez dalako egokiena. Bilduk zenbait zuzenketa-eske aurkeztu deusaz “ingurumen eta nekazal eragileen” parte hartzea eta Kontseiluaren bilerak gehiago izatea gura ebalako. Zuzenketa-eske horreetariko batek be ez dau jaso beste Taldeen aldeko botorik eta, beraz, ez dira onartu.

Hurrengo aztergaia Bingo-joko elektronikoaren jokoaren tributazinoa—abuztuaren 15ean indarreratu zan— arautzeari buruzkoa zan. Dekretu hori onartu egin dau legebatarren gehiengoak. Daborduko %25eko zerga tasa izango dauen hori Euzko Abertzaleak Taldearen eta Bizkaiko Talde Popularraren aldeko botoakaz eta Bildu Taldearen eta Socialistas Vascos Taldearen abstentzinoei esker onartu da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Horren ostean, Balio Erantsiaren gaineko Zergan zenbait aldaketa sartu gura zituan Foru Dekretu Arauemailea eztabaidatu da. Dekretu hori baina, ez da onartu, ez diralako nahikoa izan Rajoyk dekretatutako BEZaren igoerari Bizkaiko Talde Popularraren batzarkideek emon deutsien aldeko botoa, Talde hori izan da-ta BEZaren igoerea defendatzen bakarra. Bildu Taldeko 11 batzarkideek aurkako botoa emon dabe eta Euzko Abertzaleak Taldekoek eta Socialistas Vascos Taldekoek abstentzinoa bozkatu dabe. BEZari buruzko araudiaren aldaketa horrek irailaren 1etik harako indarra dauka eta Estatuko Gobernuak uztailean dekretatutako aldaketeagazko egokitzapena dakar; edozelan be horren aplikazioak aurrera egingo dau, Estatuan ezarritako arau berberak agintzen dabelako horretan, Ekonomi Itunean jasorik dagoanaren arabera.

Hurrengo, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua aldatzeari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arau-Proposamena aintzat hartzeaz eztabaidatu dau Osokoak eta erabagi dau aintzat ez hartzea zerga iruzurra detektatzeko ikuskaritza-egitamu bateratuak izatea lortu gura eban Proposamen hori, administrazioek alkarri zerga datuak laga eta ikuskaritza bateratua egin ahal izateko. Euzko Abertzaleak Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak aurka bozkatu dabe, uste dabelako administrazioen arteko koordinazio hori daborduko egon badagoala. Sozialisten eta Bilduren aldeko botoa izan dabe, baina hori ez da nahiko izan Arau horren legebatar bideraketeak aurrea egin ahal izateko, Asier Arana Bildu Taldeko batzarkidearen aburuz “aurrerapena” ekarriko eban arren.

Osoko Batzarrean zenbait ahozko erantzun eskeri erantzun behar izan deutzaz Aldundiak. Horreetariko lehenengoan, Bildu Taldeak Aldundiari galdetzen eutsan ea finantza aurreikuspen barririk egoan “Interbiak-ek eragindako zorraren inguruan, MHS-ren edo Artxandako Tunelen bidesarrietan bildutakoan izandako murrizketea dala eta”. Bilduko Aitor Torre batzarkideak “xahuketatzat” jo dau foru erakundeak errepideei buruz daukan politikea. Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andreak jakinazo dau eze MHS hasiera baten aurreikusitakoa baino 172 milioi euro gitxiago kostatu dala eta horrek “defizita konpentsatzen” lagundu dauela. Bizkaiko errepide sarearen enparaukoak askoz be gastu gehiago eragiten dauela adierazo dau Diputatu andreak.

Socialistas Vascos Taldearen Arauz Besteko Proposamen baten bitartez barrero mahairatu da MHSaren erabilerearen inguruko eztabaidea, hain zuzen be Aldundiari eskatzeko “alkarrizketea edegi dagiala eragindako gizarte eragileakaz, horren helburu izanik adostasun politikak jartea AP-8 autopistea edo Hegoaldeko Saihesbidea deritxanaren erabilerea suspertzeko”. Tontxu Rodríguez batzarkideak animatu egin dau Aldundia beste eragile batzukazko hartu-emonak sendotzera “emaitza hobek lortzearren”. Proposamen horrek Bildu Taldearen eta Euzko Abertzaleak Taldearen aldeko botoak izan ditu. Azken Talde horrek onartu egin dau Socialistas Vascos Taldearen proposamena, ze sozialistek onartu egin dabe Talde abertzaleak aurkeztu dauen zuzenketa-eskea, hain zuzen be “alkarrizketea edegi” barik “alkarrizketan jarraitu” jartea eskatzen ebana. Nerea Ahedo batzarkide abertzaleak adierazo dau MHSak balio izan dauela “A-8 autopistearen trafikoa arintzeko, istripuak gitxitzeko eta trafiko astuna Bilbotik urruntzeko”. Era berean iragarri dau eze datorren astean bilerea egingo dabela garraiolariak eta Aldundiak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko Talde Popularra abstenitu egin da, ez jakolako “bono sistema” ezarteaz aurkeztu dauen zuzenketa-eskea onartu.

Bizkaian gure esne sektoreak bizi dauen “egoera larriari” buruz Bildu Taldeak aurkeztutako ahozko erantzun-eskea zan Osoko Batzarraren beste aztergaietariko bat. Irene Pardo Nekazaritzako Foru Diputatu andreak iragarri dau eze Aldundiak erabagi dauela abendura aurreratzea 500.000 euro, egin-eginean ekoizleentzako esne-prima kontzeptuagaitik. Neurri hori generatu egin jake “ekoizpen kostuak gitxitzera eta esne-behien ustiaketan atarramenduaren hobekuntza orokorra hobatzera bideraturik Sailak 2009. urtean abiatuazo zituan enparauko jarduereri”

Bizkaiko Talde Popularrak beste ahozko erantzun-eskea bat aurkeztu dau jakiteko ze erispide erabili dauen Gizarte Ekintza Sailak desgaitasundunentzako eguneko zentro barria jarteko Durango dala lekurik egokiena erabagiterakoan. Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatu andreak erantzun dau esanez Durangaldeko udalakaz hartu-emonetan jarri ostean, horrexeri eretxi jakola kokapenik egokiena “hurren” egoana, “komunikabide egokiakaz” eta lokal “egokia eta iristerraza” zalako Udalak berak lagatako 500 metro koadruko lokal hori.

Ohikoa danez, Osoko Batzarraren azken zatian, zenbait Arauz Besteko Proposamen eztabaidatu dira. Proposamenok ez dira derrigorrez bete beharrekoak. Horretariko baten bitartez, Bizkaiko Talde Popularrak eskatzen eban Bizkaiko Foru Aldundiak onartu egizala Guggenheim Bilbao Museoaren ibilbidea aztertu eta ebaluatzeko Ponentziaren txostenak —Eusko Legebiltzarreko Kulturako Batzordeak 2012ko ekainaren 18an onartu ebanak— jasotako gomendioak. Proposamen horrek Batzar Nagusien ahobatasuna bildu dau. Euzko Abertzaleak Taldeak justifikatu egin dau aldeko boto hori, esanez proposamen horrek lagundu egiten deusala Museoaren “hobakuntza iraunkorrari”; edozelan be “argi” itxi dabe ez dagozala ados edukinagaz beragaz. Lorea Bilbao batzarkide abertzaleak adierazo dau “Aldundiak kontuan izango dituala proposamen hori zein beste gomendio batzuk”. Legebiltzarreko ponentziak emondako gomendioen artean —enparauko Taldeen oneretxia be izan dabe— egoan Museoaren frankizia-araubidea gaintitza eta Solomon R. Guggenheim Foundation-ek betetea bildumea euskal eta espainiar arteko lanakaz hornitzeko konpromisoa, Fundazioaren fondoakaz hain zuzen.

Osokoak onartu egin dau Bildu Taldeak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamena, egin-eginean Madrileko Gobernuari eskatzeko gaixotasun larri eta sendaezinak dituen presoen baldintzapeko askatasuna. Proposamen horrek Euzko Abertzaleak Taldeko batzarkideen aldeko botoa jaso dau, Talde horri onartu egin jako-ta aurkeztu dauen zuzenketa-eskea, “eskubide hori egoera berean dagozan preso guztiei zabaltzeko, ez bakarrik talde jakin batekoei”

Azkenik, Osokoak ez dau onartu Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoregoari eskatzeko “adostu dagiela jartea Barakaldoko udalerrian EHU/UPVgaz lotuta edo irakasle eta ikertzaileen Egoitza eta Ikerketa Zentrotan bat edo, halan balitz, unibertsitate fakultate



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

barriren bat". Popularren eta sozialisten aldeko botoak ez dira nahikoa izan Euzko Abertzaleak Taldeak aurka emondako 20 botoei gehiago egiteko. Bildu Taldea abstenitu egin da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia

Las Juntas Generales eligen a sus cinco representantes en la Asamblea de la Bilbao Bizkaia Kutxa

Gernika, a 31 de octubre de 2012.

El octavo pleno de las Juntas Generales del año 2012 ha arrancado en Gernika con la elección de los 5 representantes de Bizkaia en la Asamblea de la Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK). La votación, efectuada al inicio de la sesión, ha deparado que los representantes vizcaínos en este órgano de la caja, en aplicación del principio de proporcionalidad y según la representación parlamentaria obtenida en las últimas elecciones forales, sean: Luis M^a Arteatx y Naiara Zamalloa (propuestas por el Grupo Nacionalistas Vascos-NV), Antón Borja (Bildu), Luis Lupiañez (Socialistas Vascos-SV) y Jesús Sanz (Grupo Popular Vizcaíno-PV). Los suplentes serán: Itxaso Atutxa y Rosa M^a Legarreta-Etxebarria (NV), Soledad Portela (Bildu), Laura Trevilla (SV) y Mikel López (PV).

La sesión celebrada en la Casa de Juntas de Gernika ha continuado con el último trámite parlamentario para la creación del Consejo para la Sostenibilidad de Bizkaia, un órgano que sustituye al Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia (ISB) y que, según el Diputado de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, nace para “ejercer las funciones de impulso y control de las políticas de sostenibilidad del territorio”. Entre sus objetivos, la Diputación persigue con este cambio la racionalización del gasto público y aumentar la participación a todos los grupos junteros con la designación de 6 representantes de la Cámara, de un total de 12 miembros. El órgano nace con una participación paritaria entre la Diputación y las Juntas Generales.

El dictamen relativo al proyecto de Norma Foral ha sido refrendado por una amplia mayoría del parlamento al recibir el apoyo de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno. Sólo Bildu ha mostrado alguna discrepancia al no estar de acuerdo con el mecanismo de participación del mencionado consejo. A través de varias enmiendas, la coalición abertzale pretendía que se abriera el órgano a la participación de “agentes medioambientales y agrarios” y a que aumentara a tres el número de sesiones anuales. Sus enmiendas han sido rechazadas al no contar con apoyos.

A continuación, el pleno ha ratificado por mayoría el Decreto Foral Normativo por el que se regula la tributación de la modalidad del juego del bingo electrónico, con efecto desde el pasado 15 de agosto, que cuenta ya con un tipo impositivo del 25%. El decreto ha sido refrendado gracias a los votos favorables de Nacionalistas Vascos y Populares Vizcaínos, y a la abstención de Bildu y Socialistas Vascos.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El Decreto Foral Normativo para modificar algunos aspectos del Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) en donde destacaba la elevación de los tipos impositivos de este tributo, ha sido rechazado por la Cámara al no ser suficientes los 8 votos favorables de los apoderados populares, el único grupo que ha defendido la subida del IVA decretado por el Gobierno de Rajoy. Enfrente se han encontrado con los 11 votos contrarios de los representantes de Bildu, mientras que nacionalistas y socialistas han optado por la abstención. Esta modificación de la normativa sobre el IVA, con efectos desde el pasado 1 de septiembre, supone la adaptación al cambio de este impuesto decretado por el Gobierno del Estado en el mes de julio. La subida se seguirá aplicando pese a no contar con la ratificación del parlamento vizcaíno, al ser un tributo que debe regirse por las mismas normas que las establecidas en cada momento por el Estado, como recoge el Concierto Económico.

A continuación, el pleno ha rechazado la toma en consideración de la Proposición de Norma planteada por el Grupo Socialistas Vascos para la modificación de la Norma Foral General Tributaria 2/2005, de 10 de marzo, con la cual este grupo pretendía impulsar la realización de planes de inspección conjunta entre distintas administraciones tributarias. La intención era “intensificar la lucha contra el fraude fiscal” mediante la cesión de datos fiscales entre haciendas. Los grupos Nacionalistas Vascos y Popular Vizcaíno han votado en contra al entender que la coordinación entre administraciones ya se está produciendo. Los socialistas han recibido el apoyo de Bildu, pero no ha sido suficiente para seguir con el trámite parlamentario de esta norma, que para el apoderado de la coalición abertzale, Asier Arana, hubiera supuesto un “avance”.

En el transcurso de la sesión, la Diputación ha tenido que responder a varias peticiones orales de información. El Grupo Bildu quería conocer si el Gobierno foral había realizado nuevas previsiones financieras para “hacer frente a la deuda generada por Interbiak ante el descenso de la recaudación obtenido de los peajes en la Variante Sur Metropolitana (VSM) y los Túneles de Artxanda”. Su apoderado Aitor Torre, ha definido la política de carreteras del entre foral de “despilfarro”. La Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi ha informado que la construcción de la VSM costó 172 millones euros menos de lo inicialmente presupuestado lo que ha contribuido a “compensar el déficit”. “El resto de la red de carreteras de Bizkaia genera muchos más gastos”, ha respondido.

Una proposición no de norma del Grupo Socialistas Vascos ha devuelto al debate el uso de la “Supersur”. Los socialistas buscaban el apoyo de la cámara para la puesta en marcha de un diálogo con agentes sociales con el fin de “establecer políticas de consenso que potencien el uso de la AP-8”. El apoderado socialista Tontxu Rodríguez, ha animado a la Diputación a establecer estos contactos con otros agentes para “obtener mejores resultados”. La proposición ha recibido el apoyo de Bildu y del Grupo Nacionalistas Vascos. Este último ha aceptado las tesis socialistas al ser recogida una enmienda suya en la que se reconocía que la Diputación “sigue manteniendo el diálogo”. La apoderada nacionalista Nerea Ahedo, después de sostener que la VSM “ha descongestionado la A-8, ha hecho descender la siniestralidad y ha servido para alejar a los vehículos pesados de Bilbao”, ha anunciado que la semana que viene habrá un reunión entre



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

transportistas y Diputación. El Grupo Popular Vizcaíno se ha abstenido al no ser aceptada su enmienda para la creación de un “sistema de bonos” para fidelizar usuarios.

A través de una Pregunta Oral, el Grupo Bildu solicitaba conocer las medidas concretas que la Diputación va a adoptar respecto a la "grave" situación por la que atraviesa el sector lácteo en Bizkaia . La Diputada de Agricultura, Irene Pardo, ha anunciado que la Diputación ha decidido adelantar a diciembre cerca de 500.000 euros en concepto de pago de la prima láctea a los productores, medida que se “suma a las actuaciones tendentes a la reducción de costes de producción y a la mejora global del rendimiento de las explotaciones de vacuno de leche que el Departamento inició en 2009”.

A continuación la Diputada de Acción Social, Pilar Ardanza ha respondido, a preguntas del Grupo Popular Vizcaíno, sobre el criterio que ha seguido su departamento para instalar en Durango el nuevo centro de día para personas con discapacidad intelectual. Tras mantener contactos con los municipios del Duranguesado, Ardanza ha manifestado que Durango suponía el mejor emplazamiento por “cercanía”, “buenas comunicaciones” y por contar con un local “idóneo y accesible” de 500 metros cuadrados cedido por el propio Ayuntamiento.

Como es ya habitual en los plenos, el final de la sesión se ha reservado para debatir las Proposiciones No de Norma, iniciativas que no son de obligado cumplimiento. El Grupo Popular Vizcaíno ha presentado una proposición para que las Juntas Generales instaran a la Diputación a asumir las recomendaciones contempladas en el informe de la Ponencia de análisis y evaluación de la trayectoria del Museo Guggenheim Bilbao aprobado por la Comisión de Cultura del Parlamento Vasco, el 18 de junio de 2012. La propuesta ha contado con el apoyo unánime de la Cámara.

El Grupo Nacionalistas Vascos ha justificado su apoyo por entender que ayuda a la “mejora continua” del centro bilbaíno, aunque ha dejado “claro” que no están de acuerdo con su contenido. “La Diputación tendrá en cuenta esta propuesta y otras recomendaciones”, ha dicho la apodera del PNV Lorea Bilbao. Entre las recomendaciones propuestas en la ponencia del Parlamento Vasco, y defendidas por el resto de grupos, se recoge la de superar el régimen de franquicia del Museo y el que la Solomon R. Guggenheim Foundation cumpla en su compromiso de dotar a la pinacoteca bilbaína de una colección de arte vasco y español adquirida con sus fondos.

Las Juntas Generales han aprobado también una proposición de Bildu para pedir al Gobierno de Madrid la puesta en libertad condicional de los presos que padecen “enfermedades graves e incurables”. Esta propuesta ha recogido los votos favorables de los apoderados del grupo Nacionalistas Vascos al conseguir introducir una enmienda con la que perseguían que la medida se extendiera “a todos los presos que se encuentren en la misma situación, y no exclusivamente a un grupo concreto”.

Y, por último, el pleno ha concluido con el rechazo de la Cámara a una iniciativa de los populares que planteaban a la Diputación Foral de Bizkaia, el Gobierno Vasco y la UPV, a que acordasen la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

instalación en el municipio de Barakaldo de un Centro de Investigación y Residencia de profesores e investigadores o, en su caso, el establecimiento de nuevas facultades universitarias, tras el vacío generado con el traslado a Bilbao del centro universitario de Minas. Los 15 votos sumados por populares y socialistas han sido insuficientes para superar los 20 votos contrarios de los apoderados nacionalistas. Bildu se ha abstenido.